

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Dominion Industry & Infrastructures, SL Michelinen Gasteizko lantokia, Z sail Logistikoa enpresarentzako hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da 2020-2024 Dominion Industry & Infrastructures, SL Michelinen Gasteizko lantokia, Z sail Logistikoa enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100921012019.

AURREKARIAK

2021eko uztailaren 28an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialak, 2021eko uztailaren 26an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko lan hitzarmen eta akordio kolektiboaren eta berdintasun planaren erregistro Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 31

Arabako lurralde ordezkarria

MARIA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

Dominion Industry & Infrastructures SLren enpresa-hitzarmena, Gasteizko Michelin faktoriaren lantokioa, Z Logistika-sekzioari dagokiona

Hitzarmena adostu duten alderdiak:

Honako hauek sinatzen dute hitzarmena: Dominion I&I – Michelin lantokiko Z Logistika-sekzioko enpresa-batzordea (Gasteiz), Logistika-zerbitzurako, eta Dominion Industry & Infrastructures SL enpresaren ordezkariak, B66728965 IFK.

2021eko maiatzaren 31an, enpresa, Michelin lantokiko Z Logistika-sekzioko langileen legezko ordezkariak eta CCOO sindikatuko langileen legezko ordezkariak elkartu dira, eta hitzarmen hau idatzi (enpresa-hitzarmeneko akordioak). Bertan, aldeek aipatu den lantokian ezartzeko adostu dituzten akordioak zehazten dira, eta 2021ko urtarrilaren 1etik aurrerako aplikazio-data ezartzen:

1. Lurralde-eremua

Enpresa-hitzarmen honen xedapenak Dominion Industry & Infrastructures SL enpresaren lantokian aplikatuko dira, Michelin faktorian, Gasteizen (Araba), Z sekzioan, Logistika-zerbitzurako.

2. Langileen eremua

Hitzarmen honek Dominion I&I, SL enpresako Michelin lantegiaren Vitoria-Gasteizko Michelin lantokiko kargako langileei eragiten die, Z Sekzioan, Dominion I&I SL enpresako plantillak Arabako Michelin lantokian logistika-jarduerarako osatzen duena. Hitzarmen honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira Dominion I&I, SL enpresako administrazio langileak, horiei Arabako salgaien errepide bidezko garraioaren hitzarmena baino ez baitaie aplikatuko.

3. Eremu funtzionala

Hitzarmen honek Dominion I&I SL enpresaren eta aurrez aipatutako lantokiko langileen lan-harremanak arautzen ditu, gaur egun indarrean daudenak eta hurrengo kontratazioak.

4. Hitzarmenaren indarraldia/iraupena eta salaketa

Hitzarmen honen indarraldia 2020ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Hitzarmen hau eta bertan jasotzen diren akordioak sinatzen diren egunean bertan jarriko dira indarrean, eta 2024ko abenduaren 31ra arte luzatuko da indarraldia. Dena den, hitzarmenaren ondorio ekonomikoek 2021eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute, eta ez da atzeraeraginezko ondorio ekonomikorik aplikatuko 2020. urte osorako.

Soldata-taulen eguneratzea eta hitzarmen honetan itundutako edozein soldata-igoera 2021eko ekainean aplikatuko dira, eta atzerapenak sortuko dira urtariletik maiatzera. Azken horiek 2021eko uztailan ordainduko dira.

Hitzarmen honen amaieraren iragarpena automatikoa izango da, hitzarmena amaitzen denean.

Berriaz itundu da, Langileen Estatutuko 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela bi alderdiek hau ordeztu duen beste bat sinatu arte.

5. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea

Enpresak ezingo dio aldebakarrez heldu, inola ere ez, hitzarmen hau Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan jasotako prozeduraren bidez ez aplikatzeko aukerari. Horren ordez saiatu beharko du mugaegunaren aurretik hitzarmena berriro negoziatzen, beste hitzarmen bat lortzeko, edo, bestela, hitzarmena berrikusten Langileen Estatutuaren 86.1 artikuluan xedatu bezala.

Bi aldeek berriaz erabaki dute desadostasunak, ados jarrita, PRECO lanbidearteko akordioaren adiskidetze- eta bitartekaritza-prozesuen mende utziko direla lehentasunez. Arbitraje-prozedura soilik aplikatuko da, bi alderdiek prozedura horren mende jartzea erabakiz gero.

Enpresak eta langileen legezko ordezkariak adostu dutenez, 2025eko urtarrilean elkartuko dira hitzarmen hau berrikusten hasteko.

Bi aldeak (enpresa eta Gasteizko Michelin lantokiko Z Logistika-sekzioko enpresa-batzordea) ados jarrita bakarrik utzi ahalko zaio enpresa-hitzarmen hau ezartzeari.

Enpresak hitzarmen kolektiboa aldi batean ez aplikatzeko asmoa edukiz gero (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta), langileen ordezkariak akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak konpontzeko prozeduretara jota ere desadostasun hori konpontzen ez bada, bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkariaren gehiengoak), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna Estatutuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoaren esku jartzeko.

6. Batzorde paritariora

Batzorde paritario bat eratuko da. Hitzarmena sinatzen duten alderdiek osatuko dute, lau kidek gehienez: bi langileak ordezkatzeko, eta bi enpresa ordezkatzeko.

Batzorde horretako alderdietako edozeinek deialdia eskatzen badu, batzordea hogeita hamar egun naturaleko gehieneko epean bildu beharko da, eta proposatutako gaiak hogeita bat egun naturaleko gehieneko epean konponduko dira.

Honako eskumen hauek izango ditu:

Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.

Hitzarmen kolektibo honetan jasotako konpromisoak garatzea.

Batzorde paritarioko ordezkari batek dagozkion eskumenak baliatuz bilera egiteko eskatzen duen bakoitzean, batzordea bildu egingo da.

Sindikatu-ordezkaritzak zein batzorde paritarioko enpresa-ordezkaritzak gehienez bi aholkulariren laguntza eduki ahal izango dute. Hitza izango dute aholkulariek, baina botorik ez.

Edozein kidek izan dezake ordezkaria, batzordeari alde aurretik jakinarazten badiu.

Batzorde paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkariak bakoitzeko botoen ehuneko 51k berretsi behar ditu.

Batzorde paritarioan sortzen diren desadostasunak, beti, Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan arautzen den bitartekaritza-prozeduraren arabera ebaziko dira (PRECO II, 2000ko apirilaren 4ko EHAA). Bi aldeek hitzartu beharko dute sistema horien pean jartzea, eta berariaz baztertzen da nahitaezko arbitrajea. Hala ere, egoki ikusten badute, arbitrajera borondatez jotzeko ahala dute bi aldeek.

Batzorde paritarioko kide titularrek batzordea biltzen den egunetan ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute.

7. Berme pertsonala

Hitzarmen hau indarrean sartzen denean, hitzartutakoa —oro har eta urteko zenbaketan— gainditzen duten egoera pertsonalak errespetatu egingo dira.

8. Kontratazioa / kontratuak

Bi aldeek (enpresak eta langileek) erabaki dute egoera horietan Arabako salgaien errepide bidezko garraio industriaren hitzarmen kolektiboan, Langileen Estatutuan eta indarreko gainerrako legezko araudian xedatzen denari helduko diotela.

9. Kaleratzeak

Bi aldeek (enpresak eta langileek) erabaki dute egoera horietan Arabako salgaien errepide bidezko garraio industriaren hitzarmen kolektiboan, Langileen Estatutuan eta indarreko gainerrako legezko araudian xedatzen denari helduko diotela.

10. Gatazken ebazpena

Bi aldeek (enpresak eta langileek) erabaki dute egoera horietan biezkat borondatezkoa izango dela arbitrajera jotzea ala ez jotzea.

11. Lanaldi arrunta

Banakako urteko lanaldiak zehazteko, Michelin bezeroak Z Logistika-sekzioko langileentzat ezartzen duen egutegiaren jarraibideei jarraituko zaie, lantokiko txanda motak aintzat hartuta.

Dominion enpresako langileek Gasteizko Micheliniko Z Logistika-sekzioko langileen lanegun eta txandetara egokituko dituzte, Gasteizko Z Logistika Atalean aurrez aipatutako egutegien arabera.

Horrela, 5x8 txanda-sistemako langileek Micheliniko 5x8 txanden egutegi berbera jarraituko dute.

2021. urte honetan, 5x8 erako 2 egutegi daude, bata 312 aktibatze-egun ditu, eta besteak, 333 aktibatze-egun; horien artean banatu eta esleitzen dira Dominion I&I SLko langileak lantoki horretan.

Beste alde batetik, astelehenetik ostiralera 2x8 txanda-sisteman lan egiten duten langileek Michelinen txanda mota horretan lan egiten duten langileen urteko lanaldi berbera edukiko dute.

Bi kasuetan, 6 orduko gorako lanaldi jarraituak eginez gero, langileek 30 minutuko atsedenaldi bakarra edukiko dute lanegun bakoitzean, «ogitartekoa jateko», eta benetan lan egindako denboratzat hartuko da.

Jarduera berezia delako «beltza» esaten zaion lan-modalitatean aritzen diren Dominion I&I SLko langileek 10 minutu lehenago amaitu ahal izango dute laneko txanda, lantokitik joan aurretik beren burua garbitu ahal izateko, betiere hori beharrezkoa bada lanaldian hartu duten zikinkeria-mailagatik.

Enpresako zuzendaritzak konpromisoa hartzen du langileen legezko ordezkariari ekitaldi bakoitzeko lan-egutegia emateko, ekitaldi bakoitzeko lan-txandekin batera, urteko lehenengo bi hilabeteetan. Egutegia aldatu ahalko da, Michelin gure bezeroaren Z Logistika-sekzioaren programaren arabera.

12. Malgutasuna

Aurreko puntuan Michelin-Z lantokiko langileen lan-egutegiaren arabera zehaztu diren lanaldiak osatze aldera, Arabako Micheliniko Z Logistika-sekzioko Dominion I&Iko langileen urteko lanaldiaren barruan sartutakotzat hartuko dira ordu gehigarri hauek:

Laneko osasunari buruzko prestakuntza-hitzaldiak. (4 ordu urtean). Zentroko lanpostuen prestakuntza. (4 ordu urtean). Mediku-azterketa (4 ordu urtean).

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko nahitaezko prestakuntza. (gehienez 20 ordu urtean). Laneko arriskuen prebentzioari buruzko hastapeneko prestakuntzarako eta Michelin gure bezeroarekin lan egiteko baimena lortzeko behar den prestakuntzarako bakarrik erabiliko dira, bai eta Michelin gure bezeroarekin lan egiten jarraitu ahal izateko behar diren prestakuntzak berritzeko ere. Bezeroak ezartzen dituen bestelako sentsibilizazio-bilerak, -prestakuntzak eta -hitzaldiak ere halakotzat hartuko dira.

Malgutasun-ordu horiek osorik erabiltzen ez badira, ezingo dira hurrengo ekitaldietarako pilatu; hortaz, urte naturalean erabiltzen ez direnak ezingo dira hurrengo urtean eskatu.

Bestalde, Gasteizko Micheliniko Z Logistika-sekzioak eskatzen duen malgutasunari dago-kionez, honako ordainsari-modalitate hau adosten da plantako edo ekoizpen-puntetako gora-beherengatik (X lanak, T, R lanak eta ekoizpen-puntak):

X lanen abonua, ekoizpen-punten abonua eta TR lanen abonua.

2021. urtea -// 110,00. euro gordin// aktibazio-egun bakoitzeko.

2022. urtea -// 115,00. euro gordin// aktibazio-egun bakoitzeko.

2023. urtea -// 115,00. euro gordin// aktibazio-egun bakoitzeko.

2024. urtea -// 120,00. euro gordin// aktibazio-egun bakoitzeko.

Zenbateko gordin horiek lanegunak aktibatzen direnean baino ez dira sortuko, 12 hilekotan, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo; ezin dira elkarrekin aplikatu, hau da, plus bat sortzen bada, ezin izango dira beste biak sortu.

Enpresak txanda amaitu ondoren beste bi orduz lanpostuan gera dadila eskatu ahalko dio langile bati, baldin eta hurrengo txandako langileren bat agertzen ez bada; era berean, bi ordu lehenago sartzea eskatu ahalko dio, aurreko/irtetea txandako langileren bat agertu ez bada.

Ordu horiek aparteko ordu gisa ordainduko dira, edo, bestela, atsedeen-denbora baliokidea-rekin konpentsatu ahalko dira.

Bada, enpresak lehenagotzat ordena honen arabera hautatuko du langile bat ala beste, lanaldia luzatzeko edo lanaldia lehenago hasteko:

– 1. aukera: borondatez. Astero, hurrengo asterako borondatez apuntatzen diren langileen zerrenda egingo da.

– 2. aukera: boluntariorik ez badago, txandaka egingo da. Horretarako, lanaldi-luzapenak edo -aurrerapenak egiteko txandarik onenak zein diren adieraziko du langile bakoitzak (goizez, arratsaldean ala gauez).

13. Oporrak

Oporren egutegia eta egun-kopurua lan-egutegiaren bidez finkatuko dira, eta Gasteizko Michelineko Z Logistika-sekzioaren lan-egutegiak markatuko ditu, aurreko puntuan adierazitako malgutasun-orduak aintzat hartuta.

Dominion I&I SLko langileen oporren txandek bat egingo dute Gasteizko Michelineko Z Logistika-sekzioko oporren txandekin eta lan-eremuekin, aurreko puntuan adierazitako malgutasun-orduak aintzat hartuta.

Egutegian finkatu den oporraldia bat egiten badu kontratuaren etenaldiarekin edo aldi baterako ezintasunekin (laneko edo ohiko gertakariengatik, haurdunaldiarengatik, erditzeagatik, amatasunagatik, aitatasunagatik edo edoskitzaroagatik), eta, horren ondorioz, langileak ezin badu opor guztiez edo horien zati batez gozatu, enpresako Zuzendaritzaren eta langilearen artean hitzartzen diren datetan gozatu ahalko da oporraldiaz.

14. Bestelako akordioak eta ordainsariak

Enpresak eta langileek adostu dutenez, honako ordainsari-kontzeptu hauek aplikatuko dira, zenbateko hauetan:

A) 5x8 plusa:

Lan-modalitate horretan (5x8 txanda) aritzen diren langileek ondoren zehazten diren zenbatekoak jasoko dituzte, esleituta duten egutegiaren arabera. 2021ean bi egutegi daude; bata 312 egunekoa da, eta bestea, 333 egunekoa; horrenbestez, hileko zenbateko gordinak honako hauek izango dira, egutegi bakoitzaren arabera:

312 eguneko egutegia esleituta duten langileak:

2021etik 2024ra - //200,00 euro// gordin hileko.

333 eguneko egutegia esleituta duten langileak:

2021. eta 2022. urtean - //210,00 euro// gordin hileko.

2023. eta 2024. urtean - //220,00 euro// gordin hileko.

Kontzeptu horiek 15 hilabeteetan sortuko dira, eta lehen aipatutako unitate baten zenbatekoa aplikatuko zaie aparteko 3 ordainsariei.

Hitzarmen honek irauten duen bitartean, hitzarmen honetan adierazitako aktibatze-egunak aldatuz gero (egun horiek 2021ean aplikatuko dira, Michelínek 5x8 erako 312 eta 333 eguneko txandarako dituen egutegiei jarraikiz), artikulu honetan adierazitako zenbatekoak proportzionalki aldatuko dira, gutxituz eta/edo handituz, eta proportzionaltasunari eutsiko zaio hitzarmen honetan jasota dauden aktibatze-egunen aldaketarekiko, egun eta zenbatekoei dagokienez; kalkulua egiteko, berriz, 312 eta 333 egun hartuko dira kontuan, kasuaren arabera, hemen zehaztutako zenbatekoekin.

Hurrengo urteetan doikuntza bera aplikatuko da Michelínen urteko egutegien eta azkenean dauden aktibatze-egunen arabera.

B) Plus arriskutsua, nekagarria/toxikoa-Beltzekoak deritzen langileak:

Beltzeko modalitatean aritzen diren langileei nekagarritasun-plus bat aplikatuko zaie modalitate horretan lan egindako egun bakoitzeko, ondoren zehazten den zenbateko gordinarekin:

2021. urtea - //12,00 euro// gordin eguneko.

2022. urtea - //12,50 euro// gordin eguneko.

2023. urtea - //13,00 euro// gordin eguneko.

2024. urtea - //14,00 euro// gordin eguneko.

Zenbateko horiek 12 hilekotan bakarrik sortuko dira, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo.

C) Arriskutsua, nekagarria/toxikoa plusa-Hondakinetaoak deritzen langileak:

Hondakinen arloan jarduten duten langileei nekagarritasun-plusa aplikatuko zaie jarduera horretan lan egindako egun bakoitzeko, ondoren zehazten den zenbateko gordinaren arabera:

2021. urtea - //12,00 euro// gordin eguneko.

2022. urtea - //12,50 euro// gordin eguneko.

2023. urtea - //13,00 euro// gordin eguneko.

2024. urtea - //14,00 euro// gordin eguneko.

Zenbateko horiek 12 hilekotan bakarrik sortuko dira, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo.

D) Arriskutsua, nekagarria/toxikoa plusa-Z-A lantegi-eremuko eta blokeetako langileak:

D) atal honetan adierazitako zenbatekoak aplikatzeko, enpresak dagozkion neurketa tekniko-higienikoak egingo ditu lantokietan –hau da, Dominion Industry and Infrastructures SL enpresako langileek Michelíngo lantokian jarduerak egiten dituzten horietan–, bertan erabilitako produktuei dagokienez, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea aplikatuz. Emaitzak, gehienez ere, 2021en uztailaren 31n jaso beharko dira. Izan ere, langile horiek, beltzeko eta hondakinen arloko lankideek ez bezala, produktu toxikoekiko esposizio txikiagoa dute, haien tratamendua automatizatuagoa delako, eta horregatik, hitzartutako zenbatekoak txikiagoak dira B eta C lerroketan xedatutakoaren eraginpeko dauden langileei dagozkienak baino.

Neurketa horien ondoriozko indizeak Lanean Agente Kimikoen Eraginpean Egoteko Mugak Espainian 2021 izeneko txostenean adierazitakoa baino handiagoak badira –Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak 2021. urterako argitaratua– (erantsita), enpresak ondoren aipatzen diren zenbatekoak aplikatzeko konpromisoa hartzen du, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin; halere, plus hori ez da sortuko adierazitako neurketen ondoriozko mailek argitalpen horretan adierazitako atalaseak gaingiditzen ez dituztenean.

Hala, plus hori sortzea bidezkoa bada, blokeetan eta Z-A lantegian lan egiten duten langileei (gaur egun 21 langile) plus hau aplikatuko zaie, zerbitzu horietan lan egindako egun bakoitzeko, ondoren zehazten den zenbateko gordinarekin:

2021. urtea - //6,00 euro// gordin eguneko.

2022. urtea - //6,50 euro// gordin eguneko.

2023. urtea - //7,00 euro// gordin eguneko.

2024. urtea - //7,50 euro// gordin eguneko.

Zenbateko horiek 12 hilekotan bakarrik sortuko dira, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo.

Nolanahi ere, plusari dagokionez –arriskua, nekagarria/toxikoa–, B, C eta D ataletan zehaztutako kasu bakoitzerako zenbateko bera ordainduko da, horietako bat edo biak (nekagarritasuna edo toxikotasuna) izanda ere, eta ez dira metagarriak izango; hau da, zenbatekoak ez dira kausa bakoitzagatik sortzen, eta horietako bat edo biak egonez gero, atal horietan adierazitako zenbatekoak ordainduko dira.

Langile bat lanpostuz aldatzen bada, aldi baterako edo mugarik gabe, eta D) atalean jasota egotetik C) eta B) ataletan jasotako langile izatera igarotzen bada, esleituta duen lanpostuaren arabera sortuko da plus hori.

E) Errefortzu-plusa/V. funtzio-plusa:

Errefortzu-modalitatean izendatzen diren eta jarduten duten langileek 7,50 euro gordin jasoko dituzte egunean modalitate horretan lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbateko horiek 12 hilekotan bakarrik sortuko dira, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo.

F) Gaueko plusa:

22:00etatik 6:00etara jarduten duten langileei gaueko lanaren plusa aplikatuko zaie ordutegi horretan lan egindako egun bakoitzeko, ondoren zehazten den zenbateko gordinarekin:

2021. urtea - //13,29 euro// gordin gaueko egun bakoitzeko.

2022. urtea - //13,63 euro// gordin gaueko egun bakoitzeko.

2023. urtea - //13,97 euro// gordin gaueko egun bakoitzeko.

2024. urtea - //14,31 euro// gordin gaueko egun bakoitzeko.

Zenbateko horiek 12 hilekotan bakarrik sortuko dira, eta ez diete aparteko ordainsariei eragingo.

G) X aktibazioa alde zurretik ez jakinarazteagatik kalte-ordaina:

Enpresak X deitutako laneguna aktibatu baino 48 ordu lehenago jakinarazten ez badu, eguneko 30,00 euro gordineko zenbatekoa aplikatuko zaio langileari, kalte-ordain gisa, alde zurretik ez jakinarazteagatik.

Zenbateko hori gertatuz gero baino ez da sortuko, 11 hilekotan gehienez, eta ez die aparteko ordainsariei eta oporrei eragingo; izan ere, oporraldian langileak ez du lan-zerbitzurik ematen, eta guztiz ezinezkoa da kalte-ordain hori sortzea.

15. Soldata-igoera eta berrikuspena

Enpresak eta langileek honako soldata-igoera gordin hauek adostu dituzte, 2019ko abenduaren 31n indarrean zegoen urteko soldata gordinaren arabera, eta gaur egun oraindik aplikatu behar dira:

2021. urtea - //500,00 euro// urteko gordin.

2022. urtea - //550,00 euro// urteko gordin.

2023. urtea - //700,00 euro// urteko gordin.

2024. urtea - //750,00 euro// urteko gordin.

Urteko soldata-igoera horiek ezin izango dituzte xurgatu edo konpentsatu langile bakoitzak antzinasun-plusagatik sortzen dituen igoerak. Plus horri dagokionez, une bakoitzean Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboak arautzen duena aplikatuko da, eta gaur egun, antzinasun-plusaren taulak izango dira, osagarririk gabe, hau da, 1994ko urtarri-laren 1etik aurrera kontratatutakoen antzinasunaren soldata-aula.

16. Aldi baterako ezintasuna

Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da.

17. Lizentziak eta baimenak

Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da. Aurrekoa gorabehera, honako hau aplikatuko da:

A) Amatasun- edo aitatasun-kasuetan, erditu aurreko 2 baimen-egun, hura prestatzeko eskolara joateko, bai eta gertakari horrekin lotutako mediku-kontsultara joateko ere. Horretarako, 5 egun lehenago jakinarazi beharko da, eta ondoren justifikatu. Baimen hori bateraezina da Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboak 33.d) artikuluan adierazitakoarekin, Auzitegi Gorenaren epai batek deuseztatu baitu hitzarmen kolektibo guztietan.

B) Norberaren kontuetarako 8 ordu urte bakoitzeko, 4 orduko blokeetan egin daitezkeenak (2 bloke). Horiek noiz baliatu enpresarekin adostu beharko da, eta 5 egun lehenago jakinarazi beharko da. Baimen horren erabilera bateraezina da Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboan adierazitakoarekin, baimenei eta lizentziei buruzko 33. artikuluko azken lerrokan jasota.

C) Edoskitze-aldia gehienez 15 egunetan metatu ahal izango da, 5 eguneko lehenago eskatuta.

D) Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun eta/edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaideen heriotza, ospitaleratze edo ebakuntzaren ondoriozko lizentzia guztiak, bai eta langilearen ezkontzagatiko lizentziak ere, baldin eta lanegunetan ez badira, lehenengo lanegunetan hasiko dira zenbatzen, beti ere langilea ez badago oporretan, eszedentziaren batean edo kontratu-etendaldian (aldi baterako ezintasuna, ordaindu gabeko baimena eta abarrak, adibidez).

E) Lehen mailara arteko senide baten heriotzaren kasuan, ordaindu gabeko 10 egun naturalen baimena aukeratu ahal izango du langileak, heriotza-baimena amaitzen denetik zenbatzen hasita, 3 egun lehenago eskatuta. Era berean, gertaera eragilearen ondorengo 90 egunen barruan erabili ahal izango dira 10 egun horiek, 5 egun lehenago eskatuta.

F) Ordaindutako 16 ordu urtean, odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailarainoko ahaide diren eta mendetasuna dutenei mediku-kontsultetara laguntzeko, alde aurretik egoera hori egiaztatuta, eta 5 egun lehenago jakinarazi eta ondoren justifikatuta. Mendetasuna duten pertsonak izango dira 16 urtetik beherako seme-alabak, edo mendetasuna –erakunde eskudunak Mendekotasun Legea aplikatuz inguruabar hori egiaztatzeko emandako ziurtagiriaren bidez– egiaztatzen duten senitartekoak; beren kabuz moldatzea eragozteko moduko gradua dutela egiaztatu beharko dute ziurtagiri horiek.

Familia-unitatearen definizioa aplikatzearen ondoriozko baimen ordainduak argitzeko, familia-unitatetzat hartuko da era guztietako ezkontza zibil arautu, izatezko bikote edo antzeko egoeraz osatutakoa; ezkontza edo izatezko egoerarik erregistratu gabe elkarrekin bizi diren familia-unitateak izango dira azken horiek, betiere ondorengo komunik badute, biologikoa izan edo ez (familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria aurkeztuz egiaztatu beharko da hori, dagokion erregistro zibilak emana, eta, Espainiatik kanpoko jaiotzei dagokienez, apostillatuta eta itzulita egon beharko da). Edota erregistroan edo administrazioan arautu gabeko harremana, baldin eta errolatze-urtebete baino gehiagoko bizikidetzaren egiaztatzen bada; eta hori justifikatu beharko da, egiaztatzeko bestelako biderik gabe, bizikidetzaren agiri historikoaren bidez, gehienez hilabeteko lehenago emanda, edo bizikidetzaren duela adierazitako horren banakako errolda-agiriaren bidez, aurrekoaren gehieneko epe berean emana.

18. Zehapen-araubidea

Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da, bai eta Salgaien Errepide Bidezko Garraio-Enpresentzako II. Akordio Orokorrean adierazitakoa ere (2012ko martxoaren 29ko BOE, 76. zk.). Era guztietako zehapenak –astunak edo oso astunak– aplikatzeko, kontraesaneko edo sumarioko espedienteak egin beharko da. Espediente horretan, langileen legezko ordezkari bat egongo da, bai eta espedienteak ukitutako langilea eta enpresaren ordezkaria ere.

Langileari eta langileen legezko ordezkariari jakinaraziko zaie espediente hori, egin baino 24 ordu lehenago gutxienez, eta idatziz jakinaraziko zaizkio ustez egin dituen lan-arloko ez-betetzeak, eta espedienteak non eta zer ordutan egingo den.

Alderdietako bat agertzen ez bada, espedienteak egindakotzat joko da eta alderdi guztiei entzun zaiela pentsatuko da; prozedurak aurrera jarraituko du, eta, hala badagokio, zehapena aplikatuko da.

19. Laneko arropa

Langileek behar duten arropa izan dezaten, bai eta Michelineko Z Logistika-zentrorako laneko arriskuen prebentzio-arloan ezarrita dagoena betetze aldera ere, langileei sei hilez behin emango zaie laneko arropa. Datak ez dira itxiak, baina, gutxi gorabehera eta ahal dela, apirilean eta irailean emango zaizkie. Eskularruak eta zapatak beharrezko arabera entregatuko dira.

20. Medikuzterketak

Indarreko legezko araudian ezarritakoarekin bat etorriz, langile guztiek nahitaez egin beharko dute mediku-azterketa.

Enpresak zehaztuko ditu azterketa egiteko eguna eta ordua, txandei eta zerbitzuari eragin gabe.

Mediku-azterketarako orduak emango zaien tratamendua malgutasunari buruzko atalean dago jasota (lan-txandatik kanpoko lau ordu izango dira urtean, eta urteko lanaldiaren barruan sartuko dira).

21. Zuzenbide ordezkaria

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztian, enpresak eta langileek Arabako salgaien errepide bidezko garraioko hitzarmen kolektiboan, Langileen Estatutuan eta indarreko gainerako legezko araudian jasotzen eta xedatzen denari helduko diote.